



Tomasita Quiala eta Araceli Argüello inprobisatzaileak, gurean

Kolore, forma eta tamaina ezberdinekoak, baina era berean elkarren osagarri diren piezek osatzen dute biribila, bira: urriaren 9tik 14ra egingo den Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira.

Kolore biziko pieza horietako bat da Tomasita Quiala. Kubakoa. Eta, ez hori bakarrik; hango kantu inprobisatuaren izen esanguratsuenetakoa. *La reina del repentismo* (Repentismoaren erregina) titulua ere eman diote hainbatek irlan. 1961ean jaioa, ezustean hasi zen bat-batekoan, beste poeta baten omenaldian derrepente bere lehen saiakera egin zuenean. Txaloak. Itsua izateak ez zion abegi ona egin ziotela sumatzea eragotzi; eta harrera on horrek jarraitu du Kuban zein itsasoz haragoko lurraldeetan emanaldiak eskaini dituenen. Tartean, 1998an Bertsoaroaren baitan Iruñean izan zenean. Aho-zapore gozoa errepikatu nahian jarri gara berarekin berriro harremanetan. Baietz, etorriko dela.

2013an, Txapelketa Nagusia aitzakia. Orduan etorri zen Marta Sunit

argentinarra. Haren bidez ezagutu dugu bigarren artistaren izena: Araceli Argüello. Zorioneko sare sozialak; erraza izan da lehen hartu-eman horien bitartez, GMTaren arauak erritmoa markatu arren. 23 urte izanda ere, hamarkada eginga du jada gitarraren laguntzaz payadan. 400 kilometro egitera ohituta dago emanaldia eskaintzeko Argentinako mugen baitan; edota Uruguayera gehienez. Bere lehen mundu tourra izango da, beraz; eta mundiala ere izango delakoan gaude. Gustu handiz hartu du gonbidapena eta guk ere bai haren irrika.

Esperientziak emandako nortasuna eta gaztetasunaren freskotasuna uztartuko dituzte punto cubano eta payada bidez. Cocktaila osatzeko ezagunagoak zaizkigun bertsolariak: Amets Arzallus, Jone Uria, Julio Soto, Maialen Lujanbio

eta Xabi Igoa, eta osagaiei neurria hartzen eta jartzen, Iker Iriarte eta Maite Berriozabal. Ahal den neurrian hori ere, egitasmoa aurkezteko egindako prentsaurrekoan Julio Soto bertsolariak azaldu bezala, "oparia bai, eta erronka ere" badelako aldi berean.

Urriaren 9tik 14ra inprobisatzaileok taula gainean ikusteko sei aukera izango ditugu: Iruñean hasita, Erandiok, Hernanik, Gasteizek, Baionak eta Donostiak hartuko dute kantu inprobisatuaren mestizajea. Biribileko pieza guztiak bat etor daitezten eta bira osatzeko, zure zain izango gaituzu. Informazio gehiago, www.mintzola.eus atarian.



Araceli Argüello payadorea etortzen den lehen aldia da.



AITOR SALEGI MARTIJA

Zarautz, 2018-09-07

Lizardi Sariko txapeldunaren agurra

Doinua: ETaren su-etenetik

Azken agurrari hartu ahal balitzaio usaina amaigabea litzake besarkadaren tamaina. Guk badakigu jaiotzak heriotza du ordaina ustez hain urrun egonda bilakatu zen oraina. Igor ezaba ezina zuk utzitako orbaina beraz txapel hau zuretzat merezia alajaina! Zuk eman zenidanaren ondoan gutxi da baina.

44 parte-hartzaile izango ditu Xilabak

Partaide horietako bi dira Andoni Zelaia eta Elixabet Etxandi. Lehen aldiz ariko dira kantuan Xilaban, taldekako formulak erakarrita: "Iparraldeko bertsogintzak ere behar zuen leku informal hori txapelketaren girotik urruntzeko eta jendea berriz bereganatzeko".

Udaberrian aurreratu genuen Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan egiten den Xilaba txapelketa taldekakoa izango zela aurten. Azken edizioaren ondotik, txapelketaren egitura egokitzeko beharra sentitu zen, eta jarraian etorritako Bizkaiko Taldekakoak eta Gipuzkoako Herriartekoak zein jada sustraituta dauden Arabako Bertso Kuadrilla Artekoak eta Nafarroako Bardeok geratzen ziren beste hiru lurraldeetan taldekako egitasmoa egitera animatu gaituzte.

Bertsu-eskoletan dabilzaneiz jendaurrean kantatzeko erraztasunak ematea da asmoa, eta badirudi formula berriak parte-hartzaile ugari erakarri dituela; izan ere, 44 bertsolarik hartuko dute parte 2018ko Xilaban, 11 taldetan. Horietako bi dira Andoni Zelaia eta Elixabet Etxandi bertsulariak. Biak ere bat datoz: taldekako formularekin asmatu delakoan daude.

"Ikusiz Xilaba "ofizialean" soilik 15 bat bertsolari bildu zirela eta taldekakoan aisez gehiago, uste dut aski adierazgarria dela: iparraldeko bertsogintzak ere behar zuen leku informal hori txapelketaren girotik urruntzeko eta jendea berriz bereganatzeko", azaldu du Elixabet Etxandi Izpurako bertsulariak eta gehitu: "gogoia dugu taldekakoaren abenturan barna sartzeko eta ikusteko zertaz gai garen bakoitzak bere buruarentzat kantatzen ez duenean". Azken urteotan Eskolarteko txapelketan jendaurrean kantuan ikusi dugun arren, oraindik ere ez zuen bakarkako Xilabara pausoa emateko asmorik: "segurtasun gehiago ematen dizu taldekoak, lagunak baitira edo jende hurbilak. Nahiz eta bakarkakora parte hartzeko prestatu gaituzten bertsu-eskolan, eta denak hortara goazen, nekez ikusten nuen nire burua hain txapelketa formalean, hain izen handien artean", aitortu du.

Andoni Zelaia ere taldearen babesean animatu da parte hartzera: "Zalantzak izan ditut baina taldekakoak badu bere xarma. Nahiz eta bertsoa norberak sortu behar duen, talde bezala pentsatzen duzu eta bakoitzarentzat zein den lan egokiena. Aukera horrek bultzata eta elkarri zirikatzen hasi ginelako animatu nintzen", azaldu du. Irunabar Irungo bertso bilguneak bideratuta Kabigorri hileroko lehen ostegunetan egiten den bertso saioetan aritu izan da. "Han bertsu-eskolakook izaten dugu aukera kantatzeko kanpotik datozen bertsulariekin eta bai tranpolin egokia da" baieztatu du, eta zentzu horretan Xilaba berriak ere "bertsogintza beste filosofia batekin bideragarria" dela erakutsiko duelakoan dago.

"Agurra bera sortzeak ere taldea batzen du"

Kosta ala kosta taldean hartuko du parte Zelaia eta Otsoaren 7 umeak izenekoan Etxandik. Bi taldeak ere ari dira biltzen hurrengo saioetara begira: "Hendaia, Biriatu eta Urruñako hiru talde aterako gara. Aitzakia polita da eta txintxo-txintxo prestatzen saiatzen gara", azaldu du Zelaia. "Bildu gara lehen agur puntuagarriarena egiteko. Agur horren sortzeak ahalbidetzen du momentu on baten pasatzea eta sortzea ingurukoekin besteen aurrean aurkeztuko zaituen hori: nire ustez, hori sortzeak berak talde bat batzen du", erantsi du Etxandik.

Txapelketa polita izango dela eta ikus-entzuleak agertzera gonbidatzen dituzte: "Askok txapelketaren alde formalegia usu begi txarrez ikusi dutenez, gomitatzen ditut taldekakora hurbiltzea, ikus dezaten beren begiz bertsoa ez dela bakarrik puntuazioa, estresa eta txapelketa baina momentu on baten pasatzeko aukera ere izan daitekeela!", egin die deialdia ikus-entzuleei Etxandik.

Gonbidapena eginda dago, eta abenduaren 1era bitarteko egutegia ere bai: ikus www.bertsozale.eus atarian.



Andoni Zelaia Kosta ala kosta taldean hartuko du parte. //XDZ



Elixabet Etxandi Eskolarteko finalean ikusi dugu azken urteotan. //XDZ

Bertsoikasgela.eus, ikasturte berrirako oparia

Ikastetxetako bertsolaritza eskoletarako baliabideak eskura jartzen ditu webguneak: bertsoaldiak, jolasak eta ariketak biltzen ditu, besteak beste.

Lagunekin berriro elkartuta izaten diren solasaldiek, liburu berrien usainak edota birziklatutako zaharren zirriborroek ematen duten entretenimenduak asko arintzen dute irailen ikastetxerako itzulera. Aurten gainera, ikasturte hasiera horren gogorra izan ez dadin, tresna baliotsu bezain jolastia aurkeztu dugu: www.bertsoikasgela.eus ataria.

Bertsozale Elkartek martxan duen hezkuntza proiektuarekin bat egiten duten ikastetxeek, ikasleek zein bertsolaritza irakasleek baliatzeko tresna da. Bertsolaritza eskoletan erabiltzeaz gainera, ikasleek gelan landutakoa berreskuratzeko aukera izango dute eskola orduetatik at. Bat-batekoen eta bertso jarrien sorta ederrak, jolasak eta ariketek osatzen dute eskaintza. Irakasleentzat ere abantaila ugari eskaintzen ditu webguneak, gela bakoitzean gaia utzitako lekuan berrartzeko modua izango dute automatikoki edota proposamenak jasotzekoa.

25.000 ikasletik gora, bertsolaritza lantzen

Aurten ere asko izango dira *Bertsolaritza ikastetxean* proiektua bere egingo duten eskolak. 500 bat ikastetxek egiten dute bat egitasmoarekin, eta hala 25.000 ikaslek baino gehiagok jasoko dituzte bertsolaritza eskolak. Horretarako, Bertsozale Elkarteko 50 irakasle ikastetxek ikastetxe ibiltzen dira herrialde osoan barrena.

Bertsotarako abilezia gehiago landu edota bestelako zeregin batean bertsolaritzan murgildu nahi duenak bertso-eskolan izena emateko aukera du. Horretarako jarri harremanetan zure lurraldeko bertsozale elkartearekin eta galdetu ea zein den zuregandik hurbilen geratzen den eskola.

Bertsolaritzaren collagea osatuko du Hitzetik Hortzerak

Bertso-eskolak, zaleak, antolatzaileak,... anitza da bertsolaritzaren ekosistema eta aniztasun horrek guztiak egiten duen osotasuna erakutsi nahi du aurtengo Hitzetik Hortzerak.


Unai Elizasuk eman dio ongiatorria bertsozaleari Donostiako Trinitate plazan: irailaren 7a da eta Beñat Gaztelumendi, Alai Martin, Jone Uria, Iker Zubeldia, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina daude taula gainean saioari ekiteko prest. Haien aldamenean bertsolari zein publikoari so argi gorria: kamerak ere adi.

Irailaren 30arekin hasi zen Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria; baina, noski, prestaketak lehenagotik datoz. Uda aurretik jada harremanetan jarri ginen Bertsozale Elkartea eta Txakur Gorria taldea, eta iraila hastearekin batera, ekin diogu lanari: "Oso pozik gaude, bertsolaritza ondo ezagutzen dutelako eta hain barrutik ezagututa eta sortzaileak izanda oso itxura polita emango diotelako", azaldu du Eneritz Urkola Hitzetik Hortzera saioko arduradunak elkarlan berriaz. Irudia eta hitza uztartuz sorkuntza lanak egiten dituen Txakur Gorria sortzaileen taldea ere irrikaz agertu da Bertsoa.eus gunean ateratako elkarrizketan: "Autoediziotik haragoko apustua egin dugu aurten, tartean, Hitzetik Hortzeraren ekoizpena, eta ilusio bereziarekin hartu dugu aukera, aurretik zegoen

oinarri horretan gure aletxoak jartzeko", aitortu du Ane Labaka kolektiboko kideak.

Formatu berriko Hitzetik Hortzerak gai bat izango du abiapuntu eta Donostia izan da lehena: Hala, Trinitate plazako bertsoaldiak jaso ditu, besteak beste. Astelehenean biltzen da taldea eta eduki zerrenda zehaztuta, datorren egunerako prestatzen ditu Txakur Gorriak testuak eta irudiak. Egun horretan bertan grabatzen dute Eider Perezekin. Pasaiarrak elkarteko beste zenbait proiektutan hartu du parte eta telebistaren estreinako esperientzia honi gogoz heldu dio; berak gidatuko gaitu saioan zehar.

Aste osoko grabazioek eta Zubietan egindako edizio lanek bere fruitua ematen dute astebururako eta aste osoan mimos egindako sukalde lanak eskaintzen duen plazerretik gozaten dugu Hitzetik Hortzera: igandean, 15:00etan, Euskal Telebistan. On egin!



Eider Perez aurkezleak osatuko du collagea. //XDZ



Puntu jarrita

SARAI ROBLES VITAS

"Espazio propioak edukitzea, eta ez badaude sortzea". Zenbat gauza biltzen dituen esaldi honek, Irati! Azken hitza nabarmendu nahi nuke: sortzea. Izan ere, zuk aipatutako espazio propioen sorrerarekin batera piztu zait niri bertsoan aritzeko benetako gogo... eta hori ez da kasualitatea.

Zer behar da bertsoarako espazio bat "propio" edo "gure" bezala definitzeko, sentitzeko? Nire kasuan, erosotasuna; huts egiteko lasaitasuna, esperimentatzeko motibazioa eta trebatzeko ilusioa transmititzen dituen espazioa da, niretzat, eroso. Eta esan gabe doa, guzti honek asko du norbanakotik, baina baita kolektibotik ere.

Zure galderari erantzunez, baietz esanen nuke, baditudala neure sentitzen ditudan espazioak eta sareak (zuk aipatutako Nafarroako bertsolari gazteen bertso-eskola, adibidez). Baina espazio hauek orain dela gutxi lortu ditut, eta ez dira nolana horietakoak izan; modu kontzientean eraikiak izan dira, zenbait behar kolektibori erantzuteko asmoarekin.

Agerikoa da, baina honek esan nahi du orain dela gutxi arte bertsoan aritzeko nituen espazioak niretzat deserosoak zirela. Begirada atzerantz zuzenduz gero, DBHko urteak bertsoarako nahiko zailak izan zirela gogoratzen dut eta, neure bizipen pertsonalaz ari banaiz ere, zergatietako batzuk orokortu ditzakedala uste dut: huts egitearen lotsa, besteen iritziek sortzen duten beldurra, urduritasuna... laburbilduz, neure buruarengan konfiantza eskasa nuen, eta ez nuen sarri hori lantzeko modurik (espaziorik) topatu; ez nik behar nuen bezalakoa, bederen. Nik aurrera segitzea erabaki nuen, baina badakit badaudela erosotasun faltagatik bertsolaritza utzi duten asko (neska gazteak batez ere).

Hutsuneei aurre egiteko espazio ezberdinak sortu dira azken urteotan, eta oraindik hobetzeko eta sortzeko asko dagoen arren, pixkanaka hasieran aipatutako erosotasuna lortzen ari naizela (eta garela) esanen nuke.

Ziur nago egoera ez dela lehengo berdina, baina bertso ibilbidea hasi berri dutenei espazio seguruak eskaintzea da, nire ustez, dugun erronka nagusietako bat. Iker, zu bertsolaria eta bertso-irakaslea zara; nola lortzen duzu espazio bat eroso izatea? Edo zein uste duzu dela bertsoarako espazio ona? Hutsunerik ikusten duzu?

Koplak

Azaroko gogoetara begira jarri gaituzten ekarpenak

Irailaren 22an, larunbatez, bildu ginen Baionako Bernat Etxepare lizeoan Bertsozale Elkarteko gogoeta estrategikorako bigarren hitzorduan. Azaroan egingo den saiorako ekarpenak jasotzea zen helburua; eta baita ondo bete ere. 92 lagun bildu ginen eta sei tailerretan atera ziren proposamen eta iritziak aberasgarriak izango dira azaroko dokumentua prestatzeko.

Agendatan apuntatu beharreko hurrengo data azaroaren 10-11ko asteburua izango da. Asteburu osoa hartuko duen hitzordua izango da, Barrian (Araba). Urriaren zehar eskainiko dugu informazio gehiago www.bertsozale.eus helbidean eta posta elektronikoz.



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, abenduaren 15era arte

Udazkeneko saioei ekin die Bizkaiko txapelketak: bost kanporaketa, hiru finalurreko eta finala izango ditu. Azken saio hau abenduaren 15ean izango da Bilbao Arenan. Bestalde, Arabako eta Nafarroako txapelketek atariko kanporaketa saioak izango dituzte datozen asteetan. Jarraitu adi www.bertsozale.eus webgunean

www.lanku.eus

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO LIBURUA salgai!

PUBLIZITATEA